

ERASOEN AURREAN  
AUTODEFENTSA  
FEMINISTA!  
KALEAK ETA GAUAK GUREAK IZATEN JARRAITZEN DUTE

## Kaleak hartu dituzte

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren harira, ekimen ugari egiten ari dira Lasarte-Orian egunotan; adibidez, elkarretaratzeak / 2

TXINTXARRI

## Oraingoan, lasarteoriatarrekin

Ttakun Kultur Elkarteak makina bat jarduera aurrera eraman ditu, herritarrekin batera 30. urteurrena ospatzeko / 8

Atzegizaleak balioan jarri nahi ditu Atzegik, aurtengo sentsibilizazio kanpainarekin / 3

**Herritarrak XVIII. Jaiotza lehiaketan parte hartzera deitu ditu Danok Kide guraso elkarteak / 5**

**Erreferendumaren aldeko sinadura ugari bildu ditu Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak / 6**

**Tangoaren historia eta haurtzaroko bizipenak, Zero Sette orkestraren XVIII. akordeoi jaialdian / 7**

**Buruntzaldea IKTko igerilariak hemeretzi marka pertsonal berritu dituzte Ligako 3. jardunaldian / 10**

**Trinko Lasarte-Oriako Triatloi Klub-aren jarduna ez da eten; kide berriei atea zabalik du / 12**

**txitxardin**  
BRASA ETA TRADIZIOA

EGUBERRI HAUTAN OSPATU GUREKIN  
ZURE ETXEAN EDO GURE JATETXEAN

GABONETAN ERE ZABALIK!

CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA  
943-04 62 97 | 662 06 66 79  
info@casahumada.com

TRATAMENDU IRAULTZAILEA!

BIZI KALITATEA HOBETU  
ANDULAZIOAREKIN

·MUSKULU NEKEA gutxitzen du.  
·ODOL ZIRKULAZIOA hobetzen du.  
·ARTROSI, ZIATIKA eta  
FIBROMIALGIA tratamendua.  
·LOA hobetzen du.  
·MIN KRONIKOA arintzeko  
tratamendua.



HAMAR SAIOKO  
BONUAK-DITUGU

INFORMA ZAITEZ:

**Elisabeth** ILE APAINDEGIA | ESTETIKA  
Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA 943-36 15 97 | 647 82 13 61





Dozenaka herritar bertaratu dira Lasarte-Oriako Udalak deitutako kontzentrazioa. TXINTXARRI

## Indarkeria matxista ozen salatzen ari dira

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean, hilaren 25ean, bi elkarretaratze egin dituzte Lasarte-Orian, udalak zein Buruntzaldeako neska\* gazteek deituta. Datozen egunetan jarduera gehiago egingo dituzte emakumeenganako jazarpenera ikusarazi eta arbuiatzeko

### Txintxarri

Aldarrikapenerako eguna izan da hilaren 25a, eta indarkeria matxista arbuiatzeko. Lasarte-Oriako Udalak eta Buruntzaldeako neska\* gazteek elkarretaratze bana deitu dute, eta herritarrek erantzun dute.

Goizean dozenaka herritar bertaratu dira Okendo plazara, eta arratsaldean, gehiago,

eskualde osokoa izan baita deialdia. Okendo plazatik abiatu da elkarretaratzea, eta erdiguneko hainbat kale zeharkatu ditu berriro ere enparantzara bueltatu aurretik, *Erasoan aurrean, autodefentsa feminista* lelopean.

### Jarduera gehiago

Datozen egunetan ekimen gehiago egingo dituzte herrian. Hilaren

27an, Levántate y mea de pie lana taularatuko du Detritus Teatrus taldeak, 19:30ean, kultur etxean. 29an, *Nik sinesten dizut* liburua aurkeztuko du Samara Velte kazetari eta EHUko doktoreak kultur etxean, 19:30ean; eta abenduaren 1ean, Beatriz Egizabal-ek *Argi ibili gurekin* ipuina kontatuko die etxeko txikienei, udal liburutegian, 18:00etan.



Buruntzaldeako neska\* gazteek deituta manifestazioa egin dute. TXINTXARRI

## Adierazpen instituzionala

Lasarte-Oriako Udalak ohar bat kaleratu du Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean. Hainbat konpromiso hartu ditu:

1. Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea, besteak beste, Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria bideen biktima adingabeak koordinazio protokoloetan eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko protokoloetan txertatzea eta horiek eguneratzea.
2. Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza, osasun zein polizia agenteak, eta abar), eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.
3. Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak hobetzea, beren eskumenen esparruan, ikuspegi feminista duen sektore arteko abordatze integral eta holistikotik.
4. Neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduak, eta laguntza integrala ematen laguntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio edo lankidetzak maila edozein dela ere.
5. Toki administratioko langileak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diharduten langileei, genero eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuz.
6. Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkako herri itun bat lortzeko, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistik gabeko gizarte bat erdiesteko.

## Hirugarren Euskaraldia, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Ahobizi eta belarriprest rola zein ariguneak mantenduko dituzte. Leloa hau izango da: "Hitzez ekiteko garaia"

### Txintxarri

*Hitzez ekiteko garaia* lelopean, Euskaraldia egitasmoaren hirugarren edizioa aurkeztu dute Iruñean. Hizkuntza ohiturak aldatzeko proposamen berriak egingo dizkiete herritarrei,

ahobizi eta belarriprest rolei utsita. Entitateek ere parte hartu ahalko dute, ariguneak osatuta. Esan bezala, 2022ko Euskaraldiaren leloa *Hitzez ekiteko garaia* izango da. "Pandemiak aurreko edizioa

izandako eragina gaintututa, jauzi garrantzitsu bat eman nahi dugu", adierazi dute sustatzaileek. Hitzaren bidez eragiteko deia egin nahi diete herritar eta entitateei, hori baita "hizkuntza ohiturak aldatu eta inertiak apurtzeko tresna nagusia". Halaber, hitzaren bidez kalea berriro hartzeko deia egin dute, COVID-19ak nabarmen eragin baitzuen 2020ko azaroan eta abenduan egindako bigarren edizioan: "Batetik, euskararen aldeko giro sozialak kale presentzia areagotzea nahi dugu, eta bestetik,



Ahobizi eta belarriprest txapak. TXINTXARRI

euskarazko elkarrizketek berriro ere Euskal Herri osoko herrietako plaza eta kaleak betetzea".

Hainbat herritan hasita daude antolaketa lanetan, eta hirugarren aldia aurkeztuta, "lehen urratsa" tokian tokiko batzorde guztiak aktibatzea izango dela azpimarratu dute bultzatzaileek. Bigarrena, hauxe: era guztietako entitateak gonbidatuko dituzte, "lehenbailehen" has daitezen euskaraz lasai aritzeko guneak (ariguneak) identifikatzen edo berriak sortzen.





Atzegi elkarteak langile, familia eta erabiltzaileak, Agustin Valdivia alkatea ondoan dutela, kanpainaren aurkezpenean. TXINTXARRI

# Atzegizaleak balioan jartzeko kanpaina berria

Urtero legez, aurten ere kanpaina berriaren aurkezpena egin du Atzegi elkarteak; oraingoan, Atzegizaleen figura balioan jartzeko helburuarekin prestatu dute. Aurkezpen ekitaldiak egiten ari dira eta Lasarte-Orian ere ezagutarazi dute

## Txintxarri

Atzegizalearen figura balioan jartzeko presatu du Atzegi elkarteak aurtengo sentsibilizazio kanpaina. Aurkezpen ekitaldi bete-betean ari dira eta Lasarte-Orian ere ezagutarazi dute. Asteazkenean, hilaren 24an eman dute ezagutzera, udaletxean. Bertan bildu dira Atzegi elkarteak ordezkari, erabiltzaile eta familiak. Ondoan izan dituzte, Agustin Valdivia alkatea, Uxue Loinaz eta Estitxu Garmendia EH Bilduko kideak eta Jon Antxordoki EAJko ordezkaria.

Duela 21 urte, 2.000. urtean sortu zuten Atzegizaleen figura, "adimen desgaitasuna dutenekiko jarrera positiboa duten pertsonak

identifikatzeko". Kanpainaren leloari erreferentzia eginez, nabarmendu dute Atzegizaleak "geroz eta gehiago direla eta nonahi" daudela, eta gaineratu "adin eta itxura ezberdinak" dituztela: "Adimen desgaitasuna duten pertsonak diren bezala onartzen dituzte, ez dituzte epaitzen, eurengan sinesten dute eta gizartean parte hartzeko aukerak ematen dizkiete".

Lasarte-Oriako Udala ere Atzegizale izendatu dute. Beterri-Buruntzaldea eskualdean horrela izendatu duten lehen erakundea izan da. Afixa bat jaso du alkateak Atzegiko ordezkarien eskutik, eta adierazi elkartearen kanpainak iraun

bitartean, balkoian jarriko dutela ikusgai.

## 60. urteurreneko ospakizuna

Iragan urtean bete zituen Atzegi elkarteak 60 urte. COVID-19ak eragindako pandemia medio, ordea, ezin izan zuten urtemuga ospatu, baina aurten egingo dute. Iragarri dute Donostiako Kursaal jauregian izango dela ospakizuna eta iraganari zein etorkizunari erreparatuko diotela: "Sorpresa eta momentu hunkigarritz bete egongo da". Bertara joan nahi dutenek jakinarazi egin beharko dute, bide hauen bitartez: [atzegizale@atzegi.eus](mailto:atzegizale@atzegi.eus) helbide elektronikoa edota 943-42 39 42 telefono zenbakia.



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

## Ostiral "beltza"

Gaur. Azaroak 26. Black Friday.

Aste honetan kaleak, saltokiak eta sare sozialak eskaintza handiko iragarkiez beterik daude. Black Friday ekitaldia geroz eta indar gehiago hartzen ari da azken urteetan, beherapen garrantzitsuak eskainiz, gabonetako kanpainari begira, kontsumoa sustatzeko aitzakiarekin. Tradizioz, azaroko azken ostiralean ospatzen da, eta ohi egun bateko iraupena duen arren, aste guztian zehar luzatzea espero da.

Printzipioz, merkatari zein kontsumitzaileentzako onuragarria dela pentsatu dezakegu, baina ekimen ona dirudien arren, zer dago mugimendu beltz honen atzean?

Alde batetik, egun batzuk lehenago saltoki ugari beraien prezioak puzean dituzte gaurko egunean zehar jaisteko, beherapena sekulakoa dela sinetsaraziz. Bestetik, ekimen honek neurritz kanpoko kontsumismoa eta alferrikako erosketak dakartza. Gainera, saltzen diren produktuen ekoizpenean eta banaketan sortzen diren hondakinek ingurumenean kalte garrantzitsu bat sortzen dute.

Baina, zer gertatzen da komertzio txikiarekin? Mugimendu hau konpainia handientzako soilik da onuragarria, beherapen oligopolioak, etenik ez duten ordutegiak eta soldata prekarioak dituztenak. Izan ere, ekimen honek presio handia egiten dio komertzio txikiari. Izan ere, Black Friday delakoa enpresa handiek sortutako estrategia bat da, eta kontsumitzaileek saltoki guztiek eskaintza bera egitea exijitzen dute.

Merkatari txikiak ez dute prezio jaitsierak egiteko eta beherapen erakargarriak eskaintzeko aukerarik. Ez ahal da zentzudunagoa urte guztian zehar prezio justu batean saltzea? Baina, bistan denez, merkatuaren gorabeherak ez dute hau ahalbidetzen.

Komertzio txikiak ezin dituzte enpresa handien prezioak berdindu. Hortan saiatzen badira, bezeroak galtzeko beldur direnean adibidez, beraien marjinak murriztu behar dituzte, baita galerak izan ere. Gainera, Black Friday ekimen honek aurrekari arriskutsu bat ezarri dezake, kontsumitzaileek produktu baten prezioa beheratzea ohiko bihurtzen baitute.

Beraz, ez dezagun burua galdu eta hausnartu dezagun honen inguruan. Gaur, azaroak 26ean, Black Friday egunean, eta beti, pentsatu dezagun zer eta non erosten dugun. Zuk eskertuko duzu, komertzio txikiak eskertuko du, munduak eskertuko dizu.

GORKA LASA | ASIER ODRIUZOLA | GORKA ALVAREZ | JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA | NEREA SEGURA | LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS

## TTAKUNEK KULTUR DINAMIZATZAILEA BEHAR DU

*Kultur programak edota jendarte dinamizatzeko proiektuak kudeatzea izango dira bere zeregin nagusiak, besteak beste, Euskaraldia eta Euskararen Maratoia.*

- **Ezinbestekoa:** - Euskara ondo menperatzea ahoz eta idatziz.
- Kultur egitasmoen kudeaketan eskarmentua.
- Soziolinguistikako ezagutzak izatea.
- Gidabaimena

- **Zeregin nagusiak:** - Euskaraldiaren dinamizazioa: herri batzordearen eta boluntarioen lana koordinatu, koordinazio orokorreko mintegi eta bileretan parte hartu.
- Herriko kultur jarduerak antolatu eta dinamizatu.
- Herriko eragileekin elkarlana bultzatu.
- Ekimenen aurrekontua kudeatu.

Interesa izanez gero bidali curriculum [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) edo Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, helbideetara, Abenduaren 12a baino lehen.



# 2022rako lan ildoak aurkeztu ditu EH Bilduk

Udal taldearen iritziz, "inoiz baino garrantzitsuagoa" da argi izatea "lasarteoriatarren beharrak zein diren". Zentzu horretan, kritikatu du udal gobernuak ez duela aurkeztu 2022rako aurrekontu proiekturik, ez eta aurten egindako lana baloratu ere

## Txintxarri

Lasarte-Oriako EH Bilduk 2022an jorratuko dituen lan ildoak aurkeztu ditu: "Urte osoko lanak eman duen fruitua da". Adierazi du udal gobernuarekin partekatuko duela zerrenda: "Prest gaude herriaren beharren analisi partekatu batean oinarrituta, hura eraikitzen jarraitzeko, eta lasarteoriatarren interesen alde beharrezkoak diren pausoak emateko". Horren harira, udal gobernuak kritikatu du, oraindik ez duelako aurkeztu datorren urterako aurrekontu proiekturik. "Ez dakigu zein diren 2022ari begira sustatu nahi dituen egitasmo estrategikoak".



2022rako lan ildo estrategikoak aurkeztu ditu Lasarte-Oriako EH Bilduk. TXINTXARRI

## Datorren urterako bide orria

- **Herriko jarduera ekonomikoak babestu eta berrindartzea, aberastasuna herriko beharretan inbertitzea.** EH Bilduren ustez, "beharrezkoa" da jarduera ekonomikoak gauzatzeko herrian dauden espazioak zaintzea eta babestea. "Oriako industria gunea berrurbanizatzearen, birgaitzearen eta birdentsifikatzearen alde egingo dugu, horrelako eremuek sendoak behar dutelako izan, lanpostu duinak bermatu eta babesteko".
- **Udalaren baliabidean herriko elkarte eta eragileen esku uztea.** Zumaburuko udal euskaltegiaren bulego zaharrak berri eta egokitzea eskatuko du koalizio subiranistak, herriko eragileen esku uzteko gero, "parte hartzea oinarri izanik". Udalak auzoetan dituen lokalak egokitu eta auzo elkartei esleitzeko alde ere egingo du.
- **Udal ondare eta zerbitzuen publikaziozako politikak egitea.** Zehaztu du udal eraikinak garbitzen dituzten langileen postuak publikatzearen alde egingo dutela, eta udalarenak diren Okendo plaza atzealdeko etxebizitzak bizitoki sozial izatearen alde.
- **"Espazio gehiago, hobeak, humanoagoak".** Ama Brigitarren komentu paretik hasi eta Tajamar biribilgunera arteko zatian, autoen joan-etorriak kanpo uztearen eta espazio hori oinezkoentzat irabaztea eskatuko du. "Horrez gain, Askatasunaren parkean aterpe bat sortzea funtsezkoa dela aldarrikatuko dugu".
- **Udala "indartu", herritarren beharrei "modu egokiagoan" erantzuteko.** Udal taldearen ustez, "premiazkoa" da udalaren Gizarte Zerbitzuen departamentua indartzeko kontratazioak egitea: bi langile eta administrari bat. "Pandemiaren osteko garaiko zailtasunei aurre egiteko beharrezkoa da". Horrez gain, berdintasun teknikariaren postua "behingoz" sortu behar dela uste du. "Lasarte-Oria eta Hondarribia dira Gipuzkoan horrelako langilerik ez duen tamaina ertaineko herri bakarrik".

# Datorren urteko aurrekontuei begira

Etxebizitza, ingurumena eta herritarren partehartzearen gaineko neurriak proposatu ditu Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak. Horien artean, Lasarte-Orian hutsik dauden etxebizitzak identifikatu eta horien alokairua sustatzeko partida bat zehaztea galdegin du

## Txintxarri

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos (ELOP) udal taldeak hiru ardatz nagusi dituzten neurriak sartzea proposatu dio udal gobernuari 2022ko aurrekontuetan: etxebizitza, ingurumena eta partehartzea.

Etxebizitzari dagokionez, ohartarazi du udalerrian, etxebizitza kopuru handi batean inor ez dagoela errolatuta, eta horrek esan nahi duela horietako asko hutsik egon daitezkeela. Egoera horri erreparatu, azpimarratu du bizitoki eskaera handia dela, eta eskaintza, berriz, urria. Hala, egoera horri irtenbide

eman asmoz, proposatu du aurrekontu partida bat sartzea, hutsik dauden etxebizitzaren existentzia aztertu eta hala deklaratzeko izapideak hasteko, Eusko Jaurlaritzaren 2021eko ekainaren 8ko dekretuaren babesean. David Ares taldeko bozeramaileak azaldu du eskaera horren helburua dela etxebizitza horiek identifikatu eta alokairua sustatzea. Baina ez hori bakarrik; administrazio publikoak etxebizitza hutsen alokairua errazteko eskura jartzen dituen aukerak eta dirulaguntzak zeintzuk diren ezagutaraztea, eta udalerriko etxebizitza parkea handitzeko

zein aukera eskaintzen diren jakinaraztea ere bai.

Ingurumenari dagokionez proposatu du lurpeko edukiontzia kentzeari behin betiko irtenbidea emateko eta irisgarritasuna bermatuko duten edukiontzia ezartzeko beharrezko partida bideratzea. Hori, gainera, kontzientziazio kanpaina batek lagunduta egitea nahi du alderdiak. Bestalde, udalerrian animalien aisialdirako espazio mugatu bat sortzeko kokapenik onena aztertzea ere proposatu du, "maskotak edukitzearekin lotutako arazoak konpontzen laguntzeko". Eta hiri baratze



Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiko kideak, udaletxean. TXINTXARRI

ekologikoak martxan jartzea ere galdegin du: "Proposamen hori geuk egin eta aho batez onartu zen 2017an, eta izapidetzaren azken fasean dago, dagozkion txosten teknikoak besterik ez dira falta", gogorarazi du Aresak.

Azkenik, herritarren partehartzea aktibatu eta errazteko, boto sistema telematiko bat ezartzeko proposatu du ELOPek. Eskaera

hori maila teknikoan "gutziz egingarria" dela iritzita, uste du "borondate politikoaren kontua" dela martxan jartzea. Bestalde, auzoetan banatutako informazio pantailak jartzea ere proposatzen du, kultur jarduerak, jaiak, ordutegiak eta bestelako informazio garrantzitsua erakusteko, betiere kokapen posibleak eta herritarrekin eskaini beharreko informazioa adostuta.



# Jaiotzen lehiaketan parte hartzeko deialdia

lazko etenaldiaren ostean, jaiotzen lehiaketa berrantolatu du aurten Danok Kidek; XVIII. ena izango da. Parte hartu ahal izateko baldintzak ezagutarazi ditu guraso elkarteak, eta jakinarazi, abenduaren 17an eta 18an entregatu beharko direla sortutako lanak

## Txintxarri

Danok Kide guraso elkarteak ohiturari jarraikiz, jaiotza lehiaketa antolatu du urtea amaitzeko. Adinaren arabera lau taldetan banatuko ditu aurkeztutako lanak. Talde bat 6 eta 9 urte bitartekoena izango da; bigarrena, 10 eta 13 urtekoena; 14 urtetik eta 17 urterakoena hirugarrena; eta azkenik, 18 urtetik gorakoena.

Sariei dagokionez, lehenengo taldean lehenengoarentzat 70 euro eta bigarrenarentzat 50 euro banatuko diitu; bigarrenean 80 euro eta 60 euro; hirugarren taldean, 100 euro eta 70 euro; eta laugarrenean, 130 euro eta 100 euro. Hala, lehiaketara aurkeztu eta onartutako lan guztiek hamabost euro jasoko dituzte.

## Parte hartzeko baldintzak

Lanak aurkezteko baldintzak honakoak izango dira; 80x60zmm-ko neurria izan beharko dute



Lan guztiak San Pedro elizan jarriko dituzte; garaileak, Muebles Azeptian. TXINTXARRI

gehienez eta ezingo du oinarri sendokoa izan. Ez da onartuko aurreko urteetan aurkeztutako lanik. Banaka zein taldeka hartu ahal izango dute parte eta lana aurkeztearekin batera, gutunazal itxi bat entregatu beharko dute. Kanpoko aldean adierazi beharko dute zein adin taldean lehiatzen den lana, eta, barrualdean, berriz, parte hartzailearen izena, helbidea eta harremanetarako telefonoa. Ohartarazi dutenez,

parte hartzaile edo talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake.

Jaiotzak abenduaren 17 eta 18an entregatu beharko dituzte elkartearen egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13an, 17:00etatik 19:00etara. Lehiaketak irau bitartean, jaiotzak ikusgai jarriko dituzte San Pedro elizan eta sarituak berriz, Muebles Azeptian. Sari banaketa abenduaren 30ean egingo dute 12:00etan Danok Kiden.

## Ehun kasu baino gehiago zenbatu dituzte herrian azaroan

Datu ofizialen arabera, koronabirusak 2.277 herritar kutsatu ditu hilaren 24ra arte, biztanleen %12

## Txintxarri

Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak astean bitan argitaratzen dituzte datu epidemiologikoei buruzko txostenak: astelehenetan eta ostegunetan. Hilaren 22koa eta 25ekoa aztertu ditu TXINTXARRI aldizkariak. Hona hemen datu batzuk: azken zazpi egunetan 44 positibo baieztatu dituzte Lasarte-Orian, horietatik gehienak 22an eta 23an (egun bakoitzean, zortzi kutsatze). Euskal Autonomia Erkidego osoan bezala, eta Gipuzkoan bereziki, Lasarte-

Oriak kasuak eta intzidentzia tasa metatuak igotzen jarraitzen dute: 374,64 izan da erkidegokoa, eta 372,80 gure herrikoa.

Urteko azken aurreko hilabetea amaitzear dela, 103 kasu atzeman dituzte herrian. Datu ofizialen arabera, koronabirusak 2.277 lasarteoriatar kutsatu ditu 2020ko martxotik hona, ehun biztanletik hamabi. Ia-ia guztiak osatu egin dira edo bidean dira, baina, tamalez, 24 pertsonak bizia galdu dute COVID-19agatik. Gaur-gaurkoz, intzidentzia gehieneko hilabetea 2020ko

azaroa izan da: 275 kutsatze diagnostikatu zituzten orduan. Aurtengoan, esan bezala, 103 (hilaren 24ra arte).

## Beterri-Buruntzako egoera

Beterri-Buruntza mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztiak daude eremu gorrian –Eusko Jaurlaritzak langa jaitzi, eta 150eko intzidentzia tasa metatua baino altuagoa duten udalerrriak eraman ditu gune horretara–. Hilaren 22tik 24ra 70 positibo zenbatu dituzte Hernanin, 58 Andoainen, 23 Usurbilen, 22 Lasarte-Orian, hamazazpi Urnietan eta hamabi Astigarragan.

Bestalde, Osakidetzako ospitaleetan 179 pertsona daude ingratuta koronabirusagatik; horietatik 36 larri daude, Zainketa Intentsiboetako Unitateetan.



Aterpeko kideak eta udal ordezkariak, 'Black Friday' egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

## Eskaintza bereziak egingo dituzte, 'Black Friday'-a baliatuz

Aterpea merkatarien elkarteko 25 establezimenduk beherapenen eskaintza egingo dute hilaren 26an

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Aterpea elkarteak ere bat egin du, beste urtebetez, *Black Friday* egitasmoarekin. Azaroren 26an, eskaintza eta beherapen berezietz beteko dira herriko 25 komertzio. Elkarteko lehendakari Miguel Angel Prieto-k azaldu du establezimendu bakoitzak bere eskaintza eta beherapenak zehaztuko dituela.

Gaineratu du Lasarte-Oria herri bizia dela eta komertzio eskaintza zabala duela, eta aukera hori baliatuz, dei egin die herritarrei bertakoa kontsumitu dezaten: "Eguberrietako erosketak

aurreratu eta deskontuak lortzeko aukera bikaina da"

Aterpearen izenean eskerrak eman dizkie Prietok Lasarte-Oriako udaleko Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez-i, Agustin Valdivia alkateari eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, haien laguntzarengatik. Hala, herritarrek deitu dituzte Lasarte-Orian kontsumitzera.

Egitasmoan parte hartuko duten 25 establezimenduen zerrenda [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian ikus dezakezue.



Saridunak eta Aterpeko zein udaleko ordezkariak. TXINTXARRI

## Pozarren jaso dituzte sariak

Aterpea elkartearen Pura Suerte egitasmoan parte hartzeagatik, lau herritarrek 500 euroko txartel bana irabazi dute: Mabel Pedreira, Sanae Mokhlis, Marian Iparragirre eta Isabel Lopez izan dira saridunak. Hamar euroko 50 txartel jaso dituzte, denda bakarrean edo ugarritan xahutzeko.



# Erabakitzeke nahiaren aldeko sinadura bilketa

Erreferendumaren aldeko atxikimenduak bildu ditu herriko Hamaika Gara taldeak, kultur etxean. Horren aurretik, ekitaldi kulturala egin du, orain arteko bidea errepasatu eta etorkizuneko erronkak identifikatzeko. Datozen egunetan sinadurak jasotzen segiko du

## Txintxarri

Julen Basterra gitarra jotzaileak eta Nikola Iraola ballet dantzariak ireki dute ikuskizuna. Ondoren, Rebeka Garzes eta Beia Egizabal aurkezleek hartu dute hitza, eta testuinguruan jarri dituzte ikus-entzuleak, umore ukitu batekin. Gure Esku dinamikak 2014tik hona egin duten ibilbidea errepasatu dute, Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldea osatzen duten eragileak taula gainera igotzera gonbidatu, eta auzi garrantzitsuagoez erabakitzeke eguna etortzen denerako, lasarteoriarrekin entrenatu. Txartel gorriak eta berdeak zituen bakoitzak

eserlekuan, eta, baiezkoarekin edo ezezkoarekin, bata edo bestea altxatu behar zuen. Galderetako bat hau izan da: zentral hidroelektrikoa Lasarte-Orian, ala hidrogela fabrikatzeko lantegia? Ikuskizunak aurrera egin ahala, aurkezleek oholtzaren izkinetako batean zegoen lursaila ureztatu dute, landarea loratu den arte.

## Erabakitzeke nahi loratu

Landareekin nola, erabakitzeke eskubidearekin hala egin gura du taldeak: loratu. Nahi du lasarteoriarrek sentitzea berebizikoa dela horretarako eskubidea izatea, eta

erreferendumaren alde sinatzea. Kultur etxetik irteteen jaso dituzte dozena batzuk, eta horretan segiko dute. Oraindik atxikimendua eman ez duten herritarrek aukera izango dute horretarako, hilaren 27an eta 28an, Okendo plazan. Ordutegiak, hauek: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara larunbatean, eta 12:00etatik 14:00etara igandean.

Euskal Herri osoan barrena ari dira sinadurak biltzen. Horiekin, Gure Eskuk eskaera eskubidea egingo dio Eusko Legebiltzarrean ordezkari izateko alderdi politikoei, erabakitzeke eskubidea "behar bezala" arau dezaten.



Sinadura bilketa egin aurretik, ekitaldia egin dute Manuel Lekuonan. TXINTXARRI



Dozenaka herritarrek sinatu dute erreferendumaren alde. TXINTXARRI

# Erraldoi, buruhandi eta zezesuzkoekin jolasean

Lasarte-Oriako Erraldioen eta Zezensuzkoen Taldeak herriko kaleak alaitu ditu. Taldea ezagutarazi asmoz, jarduera ezberdinak egin ditu. Kalejira eginez ibili dira herriko hainbat auzo eta txokoetan barrena eta haur eta guraso ugari ondoan izan dituzte

## Txintxarri

Lasarte-Oriako haurrak herriko erraldoi eta buruhandiak ikusteko irrikaz zeuden. Antzeman zen gogo hori hilaren 20an egin zieten harreran. Urduri, zirraraz beteta gerturatu ziren txikiak Blas de Lezo kalera. 11:00etarako zegoen hitzordua eginda, eta puntu-puntu irten ziren erraldoi eta buruhandi taldea herriko kaleak alaitzera. Ttiriki-Ttarraka-ko musikariak izan zituzten ondoan; eurak arduratu ziren saioari doinua jartzeaz.

Geltoki kalean barrena, Okendo plaza atzealdera iritsi ziren. Bertan egin zuten lehen



Taldearen aurkezpena egiteko baliatu du hitzordua LOZETek. TXINTXARRI

geldialdia, dantza eta guzti. Gogotik astindu zituzten gorputzak erraldoiek, eta bizkarrak ederki berotu buruhandiek; Askatasuna parkeko zelaietan eurengandik ihesi zihozten haurren atzetik ibili ziren.

Lehen geldiunea eta gero, Isla plazan barrena iritsi ziren Kale Nagusira, eta, handik, zuzenean hartu zuten helmugarako bidea. Loidibarren pilotalekura iritsi ziren gaztetxo eta gurasoek lagunduta. Harmailak bete-beteta egin zuen taldearen aurkezpena LOZETek. Kontatu zuen Lasarte-Oriako egitasmoetan parte hartzeaz gain, inguruko herri eta hirietakoetan ere aritzen direla, eta Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako erraldoi eta buruhandiek batera topaketa bat antolatzeko asmoa ere agertu zuen, besteak beste. Txalo zaparrada entzutetsuarekin eskertu zioten bertaratu ziren familiek goizeko saioa.

Arratsalderako ere antolatu zituzten jarduera bat baino gehiago. Pintura tailerrarekin eman zioten ongi-etorria

gaztetxoek arratsaldeari. 16:00etatik 17:00etara Loidibarren pilotalekuan arte lan ederrak egiten aritu ziren eta lan horiek amaituta, berriro ere kalejirara irten ziren erraldoi eta buruhandiek. Gautxori txarangak girotu zuen desfilea. Loidibarren pilotalekutik, Sasoeta auzora joan ziren; dantzan, giro bikainean. Jaizkibel eta Andatza plazetan geldialdiak egin eta Tajamar biribilgunea hartu zuten Okendo plazara heltzeko. Bertan zeuden ordurako Sorgin Dantzako kideak; Ttakun Kultur Elkarteak ere ospakizun eguna izan baitzuen. 30. urteurrena ospatzeko hainbat egitasmo antolatu zituen, horien artean aipatu dantza. Bi elkarteek bat egin eta Sorgin Dantzako kideek eta erraldoi eta buruhandiek kalejira bat dantzatu zuten elkarrekin.

Eguna behar bezala amaitzeko, erraldoi eta buruhandiak agurtu eta lau zezesuzko atera zituen LOZETek. Udaletxe zaharretik, Kale Nagusian barrena ibili ziren gaztetxoek atzetik joan-etorrian.



# Zero Setteren eskutik, hemezortzigarren bidaiia

Zero Sette Akordeoi Orkestrak XVIII. Akordeoi Jaialdia ospatu du Manuel Lekuona Kultur Etxean, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Banduoneando bikotea eta Pietro Roffi gonbidatu dituzte. Ia bi orduko bidaiia musikalaz gozatu dute bertaratu direnek

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Akordeoiaren nazioarteko topagune izan da kultur etxea aurten ere. Instrumentu horren ezagutza sustatzeko asmoz, Zero Sette Akordeoi Orkestrak hemezortzi urte daramatza jaialdia antolatzen, udalaren laguntzarekin. Eskertu dute zaleek, auditorioa lepo bete baitute mundu mailako musikari trebeenen piezez gozatzeko asmoz. Gustura atera dira, eta eskuak gorrituta, emanaldian zehar txalo zaparrada ugari eskaini baitizkie aurtengo gonbidatuei: Banduoneando bikotea eta Pietro Roffi italiarra.

Ainhoa Aiertza-k aurkeztu ditu artistak. Oholtzara irteten



Ezker-eskuin: S. Parada, G. Gatica, R. Castellano, F. Salinas eta P. Roffi. TXINTXARRI

lehenengoak Salva Parada eta Fernando Salinas izan dira. Lehenaren ikasle izan zen bigarrena, Francisco Escudero kontserbatorioa. "Gatibatu" egin ditu bandoneoiaren doinuak, eta Banduoneando bikotea sortu berri dute: irailean eman zuten aurreneko kontzertua, Bermeon (Bizkaia), eta bigarrena, gure herriko akordeoi jaialdian. Tangoaren historian bidaiatzea proposatu die ikus-entzuleei. Horretarako, Giselle Gatica eta Roque Castellano dantzari profesionalen laguntza izan dute.

Garai desberdinetako tangoak jo dituzte Parada eta Salinasek. Aitortu dute "ezinezkoa" dela hiru ordu laurdenetan horren errotua dagoen estilo baten historia laburtzea. Edonola ere, argazki bat egin dute, oso ederra, gainera. Astor Piazzola, Anibal Troilo eta Carlos Gardel maisuen lanak partekatu dituzte ikus-entzuleekin, beste batzuen artean.

## Txikitako bizipenak

Ondoren, Pietro Roffi bakarlaririk goxatu du herritarren entzumena. 6 urte zituela hasi zen akordeoia jotzen, eta gaur egun 29 ditu.

Ibilbide luze eta oparoa egin du dagoeneko: 150 emanaldi baino gehiagotan aritu da bakarlarigisa, mundu osoan, eta konpositore ere bada: 1999 lana kaleratu zuen duela bi urte. Album horretan oinarritu du bere emanaldia. Azaldu du oso lan pertsonala izan dela, txikia zenetik gaur egunera arte akordeoiarekin izan dituen bizipenek ardatzen baitute. Bestela esanda, mota askotako sentimenduek: nostalgia, histeria, alaitasuna, umeen inozentzia, eta beste asko. Eskusoinua ez ezik, beste soinu batzuk nahastu ditu, eta emaitza harrigarria lortu.

## Artistei eskertza

Gonbidatuek euren onena eman eta gero, eskertza jaso dute. Udaleko Kultura batzordeburu Maite Iglesias-ek eta Zero Sette Akordeoi Orkestraren zuzendari Jose Manuel Crespo-k oroigarri bana eman die: *Akordeoiaren olatua* eskultura, Willy Berasaluze artistak apropos jaialdirako sortutakoa. Behin eta berriro makurtu dira artistak ikus-entzuleen aurrean, bota dizkieten loreak eta txaloak eskertzeko.

# Emanaldiak egin dituzte, Santa Zeziliaren omenez

Herriko musikari eta abeslariak emanaldiak egin dituzte Santa Zezilia eguna ospatzeko. Udal Musika Eskolako kideek kontzertua eskaini dute Okendo plazan, eta Alboka abesbatzakoek, berriz, Arantzazuko Ama parrokian abestu dute

## Txintxarri

Santa Zeziliaren omenez musika emanaldiak eskaintzera irten dira Lasarte-Oriako musikariak. Azaroaren 22a da musikarien zaindariaren eguna, baina astelehena izanik, talde gehienek aurreratu egin dituzte aurtengo emanaldiak. Txistulariek eta Gautxori zein Oaintxe in deu txarangek ezik; zaindariaren egunean egin dituzte euren emanaldiak.

Azaroaren 18an eskaini zuten kontzertua musika eskolako kideek. Okendo plazan batu dira eta askotariko musika instrumentu eta doinuekin alaitu zuten bertaratu ziren

herritarren arratsaldea. Biolinak, gitarrak, txistuak, akordeoiak, zeharkako-flautak eta tronpetak jotzen trebezia handia erakutsi zuten musikari guztiek. Kontzertuari hasiera emateko, denek batera jo zituzten hainbat abesti ezagun; *Ikusi mendizaleak* eta *Beti eskamak kentzen*, besteak beste. Giro atseginean aritu ziren denak eta emanaldia ikustera joan diren herritarren txaloak jaso dituzte eskertza gisa.

Alboka abesbatzak ere aurreko emanaldiak berreskuratu eta eskaini zuen Santa Zezilia eguneko emanaldia. Azaroaren 21ean,

Santa Zezilia egunaren bezperan omendu dute zaindaria koruko kideek.

Zumaburuko Arantzazuko Ama parrokian 11:30ean hasi zen elizkizuna, eta bertan abestu zuten Albokako kideek. Mezak aurrera egin ahala entzun ahal izan zituzten bertaratu zirenek hainbat abesti, horien artean *Laudate nomen Domini*, *Virgo dei genitrix* eta *Kantuz*. Elizatik kanpo ere kantatu zuten eta gustura entzun dute elizkizunera joan diren fededunek. *Wellerman* eta *Let it shine* abestiak eskaini dituzte eta handik Sagardotegi kalera lekualdatu ziren. Han amaitu zuten kontzertua.



Udal musika eskolako musikariak, Okendo plazan eskaini dute emanaldia. TXINTXARRI



Abokak Zumaburuko elizan abestu du, eta Sagardotegi kalean ere bai. TXINTXARRI





# TTAKUN K.E.



# FESTtakun, giro ederrean

## Ekimenak kalera atera dira

30. urteurrena dela eta, Ttakun Kultur Elkarteak FESTtakun antolatu zuen, hilaren 20an. Solaskide eta bazkideei zuzendutako pintxo pote goxoak eman zion hasiera ekimenei. Goizean zehar giro ederra izan zen Jalgi kafe antzokian; bazkide eta solaskideek mokadu eta edari gozoaz gozatu ahal izan zuten.

Arratsaldean, Sorgin Dantzak alaitu zituen Orija auzoa eta Okendo Plaza. Lehenik, Sorgin Dantzako zortzikotea eta haur eta gaztetxo talde bat bildu ziren Oriako Karmengo kapera ondoan eta txistularien doinuek lagunduta, ederki egin zuten dantza senide eta lagunuen aurrean. Ordubate geroago, Okendo plazan errepikatu zuten emanaldia. Bertan, herritar ugari bildu zen dantzariak ikustera. Gainera, amaieran, LOZET elkarteko buruhandi eta erraldoiekin bat egin zuten kalejira ederra egiteko.

Rukula talde instrumentalaren doinuekin eman zioten amaiera ospakizun egunari. Bost urte eta gero, Lasarte-Oriara bueltatu zen taldea kontzertua ematera, eta kideek barruan zeramaten guztia utzi zuten Jalgi kafe antzokiko eszenatokian. Zaleek gogotik dantzatu zuten gipuzkoarren errepertorioarekin.



Solaskide eta bazkideek pintxo pote eder batez gozatu zuten. TXINTXARRI



Sorgin Dantza doinuak entzun zituzten, berriro ere, Oriako auzotarrek. TXINTXARRI



Sorgin Dantzako zortzikoteak eta haur eta gazte taldeak ederki egin zuten dantza Okendo plazan. TXINTXARRI



Rukula taldeko kideek barnean zuten guztia eman zuten kontzertuan. TXINTXARRI



### Urteurreneko produktuak salgai

• TTAKUNEN BULEGOAN

• SAREAN: [www.labur.eus/ttakunproduktuak](http://www.labur.eus/ttakunproduktuak)  
[harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) | 646 82 44 66



Poltsa



Motxila poltsa



Aluminiozko botila



# eskatu eskaini EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza eta Politika Sailburuordetzak sustatutako kanpaina da Betikoa, gertukoa; merkataritza eta ostalaritza euskara sustatzeko egitasmoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei luzatu die bat egiteko gonbita, eta baietz esan du Lasarte-Oriako Udalak. Martxan dago honezkero, eta abenduaren 31ra arte iraungo du. Pixkanaka, herriko dendariak eta ostalariak egitasmoarekin bat egiten ari dira.



## Ormazabal loradenda

Egunero-egunero bezeroekin egiten duen moduan, adeitasunez eta euskaraz hartu du Ramon Ormazabal-ek TXINTXARRI. Bere iritziz, merkataritza eta ostalaritza funtsezkoak dira hizkuntzaren erabilera sustatzerako orduan, eta kasu honetan, euskararena. "Lehen hitza euskaraz egiten badiezu bezeroei, ari zara salerosketa hizkuntza horretan egiteko aurreneko urratsa ematen". Aurrez aurre zein telefonoz, beti egiten du lehen hitza euskaraz. Anekdotak bat kontatu du: "Txikitan erdaraz ikasi nuen eta hizkuntza horretan hitz egiten nuen, eta loradendan hasi nintzenean ekin nion euskara ikasteari, bezero euskaldunekin tratatzen nuenean, baseritik jaisten zirenekin batez ere".

## Koöl Studio

Azaroaren 19ko TXINTXARRI-n izan zuen Betikoa, gertukoa egitasmoaren berri Koöl Studioko jabe Karmele Salsamendi-k, eta interesatu egin zitzaion. Udalarekin harremanetan jartzekoa zenean joan zen Euskara Zerbitzua berarengana, eta parte hartzen ari da. Egunero bere dendara joaten diren erosleekin euskaraz hasten da hizketan, eta gehiagotan amaitzen da bezero-dendari harremana hizkuntza horretan, beste batean baino, hainbat arrazoigatik: negozio mota, gertuko harremana, herri mailako egitasmo ugaritan parte hartzea eta bezeroek aurrez ezagutzea, besteak beste. "Nigana erosketak egitera etortzen direnen profila hau da: emakumea, 20 eta 50 urte artekoa eta euskalduna".



## Aterpea elkartea

Ola Enmarcacion dendako jabea da Miguel Angel Prieto, eta bertan hartu du TXINTXARRI. Horrez gain, Aterpea merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresen elkarteko lehendakaria da, eta eragileak kanpaina nola ikusten duen azaldu du. "Tokiko komertzioa aldarrikatzen dugu beti, bezeroekiko harremana gertukoa izatea; egitasmo honek, oinarrian, hori bilatzen du, eta gainera, euskaraz. Oso interesgarria dela uste dugu". Aterpeko bazkide diren establezimenduak jakinaren gainean jarri ditu zuzendaritza taldeak, eta kanpaina hasi eta egun gutxira, batek baino gehiagok parte hartzea erabaki duela aurreratu du. "Dendarien profilen artean, euskaldunzahar eta euskaldunberri ugari daude".

## Jalgi kafe antzokia

Ostalaritzaren sektorea giltzarria da euskararen normalizaziorako, herritar ugari establezimendu horietan sozializatzen baitute, izan barran edo terrazan. Lasarte-Orian 80 taberna inguru daude gaur egun, eta hizkuntza horren arnagune bat nabarmentzekotan, Jalgi kafe antzokia da. Lokala Ttakun Kultur Elkartearena da, eta Javier Mora eta Nagore Urdangarin-ek kudeatzen dute taberna, lehen hitza euskaraz eginda beti. Kafea, freskagarria, garagardoa edo pintxoa euskaraz eskatu nahi duenak, bertan izango du horretarako aukera ederra.



Merkatariren batek kanpainarekin bat egin nahi badu, Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuarekin jarri behar du harremanetan, telefono hauetako batera deituta: 943-37 61 84 edo 646 79 78 30.



# Markak hobetuz, prestaketan aurrera

Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Neguko Ligako jardunaldia lehiatu dute Andoainen. Hemeretzi marka pertsonal ontzeaz gain, Gipuzkoako Neguko Txapelketarako behin behineko gutxieneko marka bat ere lortu du Alba Escribanok

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilariak Neguko Ligako 3. jardunaldiari aurre egin zioten, azaroaren 20an. Igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutuek entrenamenduen fruitua erakutsi eta markak ondu zituzten; hemeretzi marka pertsonal berri erdietsi zituzten.

Azpimarratzekoak dira, Alba Escribano-k lortutako lau marka berriak: 50 m. libre proba, 37,09; 200 m. libre proba, 2.36,27; 400 m. libre proba, 5.14,12 eta 200 m. lau estiloak proba, 3.03,24. 400 m. libre proban lortutako emaitza, gainera, Gipuzkoako Neguko Txapelketarako baliagarria izan daiteke behin behinean.

Hiruna marka hobetu zituzten Mayi Gorostegui-k - 400 m. libre proba, 6.31,72; 50 m. tximeleta proba, 46,71 eta 200 m. lau estilo proba, 3.26,09- eta Irati Etxeberria-k -50 m. bular proba,



Andoaingo jardunaldian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTKo igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

50,19; 50 m. tximeleta, 49,52 eta 200 m. lau estilo proba, 3.29,78-

Izaro Audikana-k -50 m. bular proba, 39,72 eta 50 m. tximeleta proba, 37,89-, Iker Gorostegui-k -50 m. bular, 40,24 eta 200 m. tximeleta proba, 2.46,81- eta Iker Gandia-k -100 m. libre proba, 1.04,15 eta 50 m. bular proba, 40,38- eta Miren Sarobe-k -400 m. libre proba, 5.17,92 eta 50 m.

bizkar proba, 38,65-, berriz, bina marka pertsonal gainditu zituzten. Azkenik, Jurgi Sukunza-k 50 m. bizkar proban 33,75 denbora egin zuen. Taldeko gainerako igerilariak ere euren marketatik gertu ibili ziren.

Abenduaren 18an izango dute hurrengo jardunaldia eta emaitza hobeak lortzeko asmoz, lanean jarraituko dute.

# Iruña RCk bigarren zatian irauli du Euskal Ligako partida

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldeak ezin izan du ezer egin bigarren zatian; 19-38 galdu du

## Txintxarri

Ez zen posible izan. Indarrak berdinak zirela zirudien arren, bigarren zatian Iruña RC taldea 19-38 gailendu zen Michelin kirol gunean jokatu zen Euskal Ligako 2. Mailako neurketan.

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldea aurreratu zen markagailuan eta ederki eutsi zion. Iruñak, ordea, ez zuen amore eman. Lehen zatian atzetik joan arren, azken minutuan aurreratu zuen talde beltza entsegu eta ostiko bidez, 19-21.

Atsedena ostean, Iruña izan zen nagusi zelaian. Beltzek aukera gutxi izan zituzten atera iristeko; Iruñeko taldeak, berriz, hamazazpi puntu egin zituen.

Ohorezko B mailan, berriz, Gesalaga Okelan Zarautz eta Bera Bera taldeen arteko norgehiagoka borrokatua izan zen. Azken momentura arte ez zen irabazlea erabaki eta Beltzek puntu batengatik irabazi zuten partida.

## Gabonetako saskia

Bestalde, Beltzak Rugby Taldeak jakinarazi du Gabonetako saskiko



Neurketako irudia. TXINTXARRI

txartelak salgai daudela. Saria Gure Etxea tabernan ikusgai dago.

Ohiko tabernatan eskuratu daitezke dagoeneko tiketak eta taldeko gazteek ere saltzen dituztela jakitera eman dute taldeko arduradunek.

Jasotako dirua Errugbi Eskolara bideratuko dute. Taldeko arduradunek nabarmendu dutenez, "eskolaren filosofia haurrek kirola egin eta horrek familiei gasturik ez sortzea da. Beraz, horretarako erabiliko dugu dirua".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Touring KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:30. Fanderia, Erreterian.
<b>GORONGOEN MAILA</b>
<b>Hernani CD - Ostadar SKT</b> Igandea. 18:45. Zubipe, Hernanin.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Segura Goierri KE</b> Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
<b>OHOREZKO JUBENIL MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Tolosa CF</b> Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENILEN 1. MAILA</b>
<b>Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT A</b> Igandea. 15:40. Berio, Donostian.
<b>Astigarragako Mundarro FKE - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 17:45. Zarkumendegi, Astigarraga.
<b>OHOREZKO KADETE MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Billabona KE</b> Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
<b>KADETEEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Usurbil FT A</b> Igandea. 15:10. Michelin kirol gunean.
<b>Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

<b>INFANTIL TXIKI 2.FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Hernani CD</b> Igandea. 13:20. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTILEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Euskalduna SD</b> Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT B</b> Igandea. 11:45. Michelin kirol gunean.
<b>ALEBINA AURREKO FASEA</b>
<b>Orioko FT - Ostadar SKT</b> Igandea. 09:30. Mendibeltz, Orion.
<b>Texas Lasartearra CF - Danena KE</b> Igandea. 10:40. Michelin kirol gunean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>1. MAILA</b>
<b>IDK Pari Berri Donibane - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones</b> Ostirala. 21:45. Pasai Donibane kirol., Pasai.
<b>2. MAILA</b>
<b>Eguzki ISU Leioak - Goierri FS</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>GAZTEEN MAILA</b>
<b>Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra A</b> Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>INFANTILEN MAILA</b>
<b>Eguzki AF - Erain 1º 2º</b> Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.

<b>ESKOLA TOPAKETA</b>
<b>Eguzki AF taldeko Alebin eta Benjamin Mailako gaztekoek eskolen arteko topaketan parte hartuko dute.</b> Larunbata. 09:15. La Asunción ikastetxea, Donostian.
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>SENIOR 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - TAKE</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>Ostadar KE - CD Internacional (Aurreratutako partida)</b> Igandea. 12:00. Mons kirol., Donostian.
<b>SENIOR 2. MAILA</b>
<b>Drunkat Hoops - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
<b>SENIOR 3. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>JUNIOR ERRENDIMENDU</b>
<b>BKL Esparru - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:30. Antzizar kir., Beasain.
<b>KADETE ERRENDIMENDU</b>
<b>Ostadar SKT - Eskoriatza KE</b> Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.
<b>KADETE PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Sebal ISB</b> Larunbata. 13:15. Maialen Chourraut kirol.

<b>INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA</b>
<b>Ostadar SKT - Andraitz KE</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>MINI</b>
<b>Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea</b> Igandea. 10:00. Maialen Chourraut kirol.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Gebo RT - Gesalaga Okelan Zarautz RT</b> Larunbata. 16:00. Fadura, Getxon.
<b>EUSKAL LIGA 2. MAILA</b>
<b>BRT Menditarrak - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT</b> Larunbata. 16:00. Lekaroz, Elizondan.
<b>18 URTEZ AZPIKOA</b>
<b>Domiberia RC Rioja - Itsasmendi Gesalaga Okelan Zarautz RT</b> Larunbata. 12:45. Prado Viejo, Logroñon.
<b>PILOTA</b>
<b>NAGUSIAK 3. MAILA - BIKOTEKA</b>
<b>Intza KE - Tartaloetxe 2</b> Larunbata. 16:15 (3. partida). Michelin pil.
<b>JUBENILAK 2. MAILA - BIKOTEKA</b>
<b>Intza KE - Azkoitia</b> Igandea. 11:15. Michelin pilotalekuan.
<b>JUBENILAK 2. MAILA - BANAKA</b>
<b>Intza KE - Murumendi</b> Larunbata. 16:15 (2. partida). Michelin pil.

<b>KADETEAK 2. MAILA - BIKOTEKA</b>
<b>Intza KE - EPLE</b> Larunbata. 16:15 (1. partida). Michelin pil.
<b>KADETEAK 2. MAILA - BANAKA</b>
<b>Ataun - Intza KE</b> Igandea. 11:00. Auzoeta pil., Ataunen.
<b>BOLEBOLA</b>
<b>JUBENIL MAILA</b>
<b>Hernani KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:00. Hernaniko kiroldegian.
<b>Fortuna - Ostadar SKT (Atzeratutako partida)</b> Larunbata. 16:00. Pio Baroja kir., Donostian.
<b>KADETE MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Lizardi Bat</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>ATLETISMOA</b>
<b>PLP</b>
<b>Ostadar Atletismo saileko federatuek Parte-hartze libreko proba dute. Jauzi hirukoitza eta pisu jaurtiketa probak lehiatuko dituzte.</b> Larunbata. 16:30. Mojategi, Arrasaten.
<b>DONOSTIAKO MARATOIA</b>
<b>Hainbat herritarrek Donostiako Zurich Maratoian eta 10 kilometroko proban parte hartuko dute.</b> Igandea. 08:35/09:00. Donostian.



# Jubenil taldeek, ezin etxean garaipena lortu

Ostadar SKTren Jubenil A taldeak partida zaila lehiatu du multzoko buru den Arrupe Chaminaderen aurka. B taldeak, berriz, Lengokoak B izan du aurkari. Michelin kirol gunean jokaturako partidetan 0-5 gailendu dira kanpoko taldeak

## Txintxarri

Hilaren 20koa ez zen Ostadar SKTren jubenil taldeen eguna izan. Arrupe Chaminade eta Lengokoak izan zituzten aurkari Michelin kirol gunean eta bi norgehiagoek emaitza bera izan zuten, 0-5.

A taldeak, hasi aurretik, partida zaila izango zuela argi zuen. Bere multzoko sailkapeneko burua zuen aurrean, Arrupe Chaminade. "Mailako talderik indartsuenetakoa da. Ez dute ia partidarik galdu", adierazi digu Iker Herrera entrenatzaileak.

Lehen zatia borrokatua izan zen eta aukera gutxi sortu zituzten taldeek. Tamalez, donostiarrek ongi baliatu zituzten izandako biak. Ostadarren huts baten ondorioz, lehen gola egin zuen, eta jokaldi baten ostean, bigarrena. Markagailuak adorea eman zion aurkariari eta minutuak igaro ahala jokoan nagusitu zen bigarren zatian. Horri esker, beste hiru gol gehiago sartu zituen.

Jubenil A taldeak ezin izan zituen puntuak eskuratu. Ondorioz, sailkapeneko azken aurreko postura jaitzi da. Helburua, ordea, laugarren postua da. "Laugarren postuak hurrengo faserako sailkapena



Jubenil B eta Lengokoak B taldeko jokalaria baloia lortzeko borrokan. TXINTXARRI

ematen du. Postu horretatik lau puntura gaude eta lehen fasea amaitzeko lau partida falta ditugu. Jokalaria gogotsu daude eta sailkapena posible ikusten dugu", adierazi du talde urdin-beltzeko entrenatzaileak.

## Sailkapena, zail

Ordu batzuk lehenago, Jubenil Mailako B taldeak zorte bera izan zuen Lengokoak B taldearen aurka. Partida borrokatua izan arren, arerioak atera iristeko erraztasun gehiago izan zuen. Gainera, bigarren zatian, hamar jokalarirekin jolastu behar izan zuen talde urdin beltzak.

Talde sailkapeneko lehen lau postuetatik urrun dago. Gainera, puntuak kontuan izanik, zail izango du hurrengo faserako sailkatzea.

## Errege Kopa

Bestalde, Errege Kopako zozketa egin zen hilaren 18an. Hilaren 28a eta abenduaren 3ra artean jokaturako dira partida bakarreko kanporaketak eta horien artean, 1. RFEF mailan -Bigarren B maila izan zena- dagoen Gernikak Eibar izan du du aurrez aurre, Ubiria zelaian. Bizkaiko taldean Gorka Marcos Sanchez herritarra ari da jokatzeko, eta hainbat gol sartu ditu denboraldi honetan.

Mailako lehiari. Hotz hasi zuen partida Intzako pilotariak eta Sorluzeko Caramanzana-k aurrea hartu zuen, 0-9. Olazabalek partidari itzulia eman nahi izan zion, eta jokoan nagusitu arren, hasierako errenta gehiegizkoa izan zen.

## Final laurdena

Gipuzkoako Eskuz Binakako Txapelketan, berriz, Nagusien 3. Mailako bikoteak final laurdena jokaturako du hilaren 27an, Michelin kirol guneko pilotalekuan. Aurkaria Tartaloetxe 2 izango da.

## Intzako pilotariak, ezin banakako lehia garaipenarekin hasi

Jubenil zein kadete mailako pilotariak Ataunen eta Sorluzeren aurkako partidak galdu dituzte

## Txintxarri

Eskuz Banakako Gipuzkoako Txapelketa hasi da eta Intza Kirol Elkarteak pilotariak ez zuten zortetik izan Jubenilen eta Kadeteen 2. Mailako lehen jardunaldian. Jubenilek Ataunen aurka jokatu zuten Michelingo kirol gunean. Arerio bat izan zen

nagusitu partidari, Eizagirre. Haritza Diaz de Gereñu herritarrek ongi egin zion aurre eta hainbat jokaldi luzatzea lortu zuen. Tamalez, tantoak bukatzerakoan akats ugari egin zituen eta ataundarrak eraman zuen saria, 2-22.

Beñat Olazabal-ek ere 18-11 galdu zuen partida Kadeteen 2.

## Nahiz eta garaipenik ez erdietsi, egindako lanarekin pozik

Eguzki Areto Futbol taldearen infantilek 2-7 galdu dute Lauburu Ibarren aurkako norgehiagoka

## Txintxarri

Hilaren 21ean, Eguzki Areto Futbola eta Lauburu Ibarra taldeen harrobiek elkarren aurka jokatu dute Maialen Chourraut kiroldegian. Infantil mailako taldeek indarrak neurtu eta ibartarrak atera dira garaile, 2-7.

Aurkaria nagusi izan da partida hasieratik eta etxeko taldearen akatsak ongi baliatu zituen markagailuan aurrea hartu eta partida bereganatzeko.

Neurketa jokatu baino lehen partida zaila zela jakitun zen Gorka Redondo prestatzailea: "Gu lehen urteko taldea gara, eta eurek lehen eta bigarren urteko jokalaria dituzte. Gainera, ez da ahaztu behar Lauburu Ibarren duen urtetako ezagutza. Ibarra Areto Futbola da".

Emaitza aldeko izan ez arren, taldeko prestatzailea pozarren agertu da taldeak egindako lanarekin: "Ongi egin diegu aurre. Jokalari guztiek izan dute jokatzeko aukera, eta egindako lanarekin, pozik amaitu dute partida. Hori da gure helburua".

Era berean, taldeak garatzeko aukera asko dituela ere aurreratu du infantil taldeko entrenatzaileak. "Aurtengo ikasteko urtea da eta jokalaria



Neurketako irudia. TXINTXARRI

mantenduz gero, hurrengo urtean partida gehiago irabazteko aukera izango dugu".

## Eskolen Topaketa

Bestalde, urte eta erdiko etenaren ostean, Eguzki Areto Futbola Eskolako gaztetxoak lehiara itzuliko dira eta Benjamin zein Alebin Mailako taldeek estreinazok jokaturako dute hilaren 28an Donostiako La Asunción ikastetxean antolatutako Eskolen Topaketan.

Txikiak Antiguoko eta Lauburu izango dituzte aurrez aurre; alebinen aurkariak, berriz, Lauburu hiru talde, Eskoriatza eta Antiguoko dira.

## Lasarte-Oriako Udalak zazpi kirol talde lagunduko ditu

Guztira 68.250,99 euro jasoko dituzte kirol elkarteek euren jarduna aurrera eraman ahal izateko

## Txintxarri

Ostadar SKT, Texas Lasartearra, LOTME Kirol Kluba, Intza Kirol Elkarteak, Buruntzaldea IKT, Lasarte-Oria Kirol Elkarteak (LOKE) eta Eguzki Areto Futbola. Horiek dira Lasarte-Oriako Udalak eskaintzen dituen kirol elkarteentzako dirulaguntza arruntak jasoko dituzten zazpi kirol elkarteak.

68.250,99 euroko laguntza banatuko du udalak deialdira aurkeztu diren kirol elkarteentzako.

### Kirol elkarteek jasoko duten laguntza

Ostadar SKT	25.068,38
Texas Lasartearra	7.003,13
LOTME	9.231,02
Intza KE	4.204,48
Buruntzaldea IKT	9.209,39
LOKE	10.074,59
Eguzki AF	3.460
<b>Guztira</b>	<b>68.250,99</b>





Pablo Muñoz Pielago herritarra, Aritzaleku Triatloian lasterka. PABLO MUÑOZ PIELAGO

# Trinko Triatloi Klubak, etenik ez

Nahiz eta 2020-2021 denboraldian txapelketa ugari bertan behera geratu, Trinko Triatloi Klubeko kirolariak ez dira geldirik egon. Kide berriak ere batu dira taldera. Ibai Izagirre Agote eta Pablo Muñoz Pielago herritarrekin solastu gara euren esperientzia ezagutzeko

## Txintxarri

COVID-19aren ondorioz, azken bi urteak gorabeheratsuak izan dira kirol federatua egiten duten kirolarientzat; zer esanik ez hiru kirol uztartzen dituzten Trinko Lasarte-Oriako Triatloi Klubeko kideentzat. Lehiaketa gutxi antolatu diren arren, taldeak lanean jarraitu du eta hainbat kide berri ere gehitu ditu bere jardunera. Horietako batzuk izan dira Ibai Izagirre Agote (Lasarte-Oria, 2001) eta Pablo Muñoz Pielago (Lasarte-Oria, 1984).

"Kirola egitea gustuko duzulako, lagunekin kirol egitea gustuko duzulako...". Hamaika arrazoi egon daitezke triatloia egiten hasteko. Izagirrek bere aitaren pausoak jarraikiz egin zuen hautua. "Berak triatloiak egiten zituenean beti joaten nintzen ikustera eta oso gustoko nuen. Gainera, bizikletan ibiltzea eta igeri egitea oso gustoko nuen. Pare bat triatloi herrikoi eginda nituen baina futbolera jolasten nuenez entrenatu gabe egiten

nituen. Futbola utzi nuenean aukera bat ikusi nuen eta berehala federatu nintzen triatloian eta entrenatzen hasi nintzen".

Muñozek, berriz, kirola egitea eta entrenatzea gustuko dituelako eman zuen pausoa. "Triatloian hasi nahi nuen. Korrika egiten nuen eta bizikletan ibiltzen nintzen. Eta falta zena biak uztartzea zen. Igeriketan ez naiz iaioa, baina ahal dudana egiten dut. Lanean hasi, lehiaketa probatu eta aurrera egin dut", onartu du.

Biek Trinko aukeratu dute senideak edo ezagunak dituztelako taldean. Izagirreraren kasuan aita da taldeko kide eta Muñozenean, berriz, lehengusua, eta hainbat ezagun ditu Trinkon.

Horrez gain, taldea herrikoa izatea ere ezaugarri garrantzitsua izan dela aitortu du Muñozek: "Herrikoak dira eta ez duzu Donostira joan behar entrenamendu edo bestelako kudeaketak egiteko. Gainera,

ezagunak dira. Zer hobe beraiekin bat egitea baino!".

## Distantzia ezberdinak

Triatloian distantzia ezberdinetako lehiaketetan parte hartu dezakezu. Izagirrek, esate baterako, distantzia motzetako probak edo *sprint* probak prestatu ditu; Muñozek, berriz, proba luzeak.

"*Sprint* distantzia aukeratu nuen, batez ere, korrika gutxi ibiltzen nintzelako. Gainera, ez nuen nire burua distantzia handiagoga egiteko prest ikusten", onartu du Izagirrek.

Muñozek, berriz, distantzia luzeak egitea gustuko du: "Maratoi batzuk egin ditut korrika. Gainera, distantzia luzeak probak hobeto datozkidala uste dut".

## Prestaketa eta lehia

Pandemia dela eta, ordea, Muñozek adierazi modura, zailtasunak izan dituzte entrenamendu batzuk aurrera

eramateko orduan: "Pandemiarekin kirolari federatuok besteek baino lehen izan dugu lanean hasteko aukera. Murrizketa batzuk ere jasan behar izan ditugu, noski, itxiera perimetralak, esate baterako. Nire puntu ahula den igeriketa lantzeko ere zailtasunak izan ditut igerilekuan ezarritako murrizketak zirela eta".

Horrez gain, Trinkoko kideek ez dute lehiari sartzeko aukera askorik izan. "Bi urte hauek nahiko zailak izan dira probak egiterako orduan. Lehengo urtean, adibidez, ezin izan nuen probarik egin, eta aurtengoa ere zaila izan da. Triatloi *sprint* gutxi antolatu dituzte eta gehienak Euskal Herritik kanpo", nabarmendu du Izagirrek.

Bi triatloitan parte hartzeaz gain, beste modalitateetako probetan ere lehiatu da. "Pare bat mendi duatloi egin ditut errebotez, eta oso esperientzia ona izan da. Eta, azkenik, Behobia-Donostia lasterketarekin bukatu dut denboraldia, eta oso esperientzia polita izan da. Gainera, aitarekin batera egin dut".

Muñozek, berriz, Platja de Aron (Girona) antolatu zen distantzia luzeak proba bat zuen helburu: "Nik argi nuen proba bakarra egingo nuela. Hala ere, beste triatloi batzuk ere egin ditut. Baina ziurgabetasun handia egon da. Probak prestatzen ari zinen eta ez zenekien azken momentura arte egingo ziren. Prestaketak

zerbaitetarako balioko du? galdera beti zenuen buruan".

## Denboraldi berria

Hurrengo denboraldira begira, Izagirrek proba gehiago antolatuko direnaren esperantza du. "Onditzeko triatloia izango da nire helburua, distantzia olinpikoa dena. Bestalde beste triatloi *sprint* batzuk eta hainbat duatloi ere egitea gustatuko litzaidake. Horiez aparte, trabesiaren bat edo zikloturista ibilbideren bat egitea ere gustatuko litzaidake. Denboraldia amaitzeko Behobia-Donostia ere helburu polita izango da".

Muñoz, aldiz, aita izango da aurki eta kirolari dagokionez, urte lasaiagoa izango duela onartu du: "Entrenatuko dut eta ahal izanez gero, probaren batean parte hartuko dut. Baina distantzia motzak izango dira".

## Federatzearen garrantzia

Trinko Triatloi klubeko kideek herritarrak gonbidatu nahi dituzte taldean izena eman eta federatzera. Muñozek adierazi modura, federatzea abantaila bat da: "Entrenatzerako orduan, errepidean edo kalean arazorik baduzu bermea duzu. Gainera, urtero esfortzu proba bat egiten dizute eta horrek nola zauden jakiteko balio dizu".

Horrez gain, Trinko taldeko arduradunek deialdi berezia egiten diete emakumei: "Oraindik emakumerik gabeko taldea gara, eta triatloia egitera animatu nahi ditugu".



Ibai Izagirre Agote, aurtengo proba batean lehiari. IBAI IZAGIRRE AGOTE



## ZORION AGURRAK



**Linda**  
Zorionak panpintxo!  
Abestiak dioen moduan... "Lau, lau, lau, sardina bakalao!" Segi etxea alaitzen zure abestekin, asko maite zaitugu!



**Marijo eta Toñi**  
100 urte batzen dituzue. 200 batzerakoan zuekin ospatu nahiko genuke!!!



**Noa**  
Familia guztiaren partetik, zorionak Noa!



**Aitor**  
Zorionak, Aitor! Egun ederra igarotzea espero dugu. Muxu handi bat familiaren partetik, zure bederatzigarren urtebetetzean!



**Maddi**  
Ongi dago zure urtebetetze eguna goiz-goizetik ospatu nahi izatea, baina nori zegokion asteartean telefonoa hartzea? Ejem...egun berezia zelako barkatuta zaude, baina hamaitetako zorretan! Zorionak, bella!


## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26	DE ORUE	<b>EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00</b>
LARUNBATA, 27	DE MIGUEL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 28	DE MIGUEL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 29	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 30	DE MIGUEL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 1	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 2	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

**URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA** eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## KOMIKIA



## OHARRA

**Odol ateratzeak**

Lasarte-Oriako odol emaileek hileroko hitzordua dute azaroaren 30an, asteartearekin Antonio Mercero aretoan. Arratsaldeko 17:30etik 20:30era odol ateratzeak egingo dituzte.

Odola eman nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute 943 317 091 telefonora deituz.

Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrek gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

**Biyak Bat elkarteko loteria salgai**

Biyak Bat elkarteak Gabonetako loteria jarri du salgai. Elkarteko zuzendaritzak jakitera eman duenez, bulegoan eskuratu daiteke astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era. Bazkideek azaroaren 30era arte izango dute elkarteko loteria erosteko.

**Autobusa Gasteizera abenduaren 11n**

Soziedad Alkoholika, Angelus Apatrida, Anestesia eta Proud'Z taldeek kontzertua eskainiko dute abenduaren 11n, Gasteizeko Iradier Arenan.

Autobusa antolatzen ari dira Lasarte-Oriatik hitzordura joango diren pertsonekin. Jalgi kafe antzokian eman behar da izena.

**Heriotzen berri eman**

Ingurukoren baten heriotzaren berri txintxarri aldizkarian Heriotzak atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Lasarte - Orio 2021

ferraren bila

2000€  
saritan

Jolastu Lasarte-Oriatik zehar urre-koloreko ferren bila!

Azaroaren 15etik Abenduaren 4ra



Eskaneatu QR kode hau edota sartu:  
<http://www.aterpea.es/ferrarenbila.html>

Kontsultatu promozioaren oinarriak eta establezimendu parte-hartzaileen zerrenda.





## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALDU

Marina D'O r urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

### LANA

#### ESKARIA

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona a d i n d u a k z a i n d u . Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643239251  
Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara.

Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala

garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98. Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95. Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. 670 20 78 14, Amaia.



## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo  
eta Aizpea Amas.

#### Banatzaitzaileak:

Igone Mendizabal,  
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,  
Julene Iraola, Egoitz Epelde,  
Sergio Hernandez, Ander Hazas  
eta Iñigo Garcia.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua:

SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.500 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Jaialdia.** Jalgune elkarteak jaialdi koloretsua oparituko die lasarteoriarrei. Berezi-berezia izango da, aurten 30 urte bete dituelako, eta gogotik ospatu nahi duelako. Ohi bezala, lagun ugari partekatuko dute oholiza Jalgunerekin. Emanaldia bidez grabatuko du TXINTXARRI aldizkariak, eta bere atari digitaletan eman gero. Hiru hamarkadako ibilbidea egin dutela ospatzeko, bi bideo berezi grabatuko ditu, eta egitasmo berezia prestatu abenduaren 3rako, Ttakun Kultur Elkarte, Aterpea merkatarien elkarte eta Ore Ama obradorearekin batera. Egun horretan TXINTXARRI-k argitaratuko duen zenbakian honakoa topatuko dute irakurleek: Ore Amako sari gozo batengatik trukatzeko txartela, eta Aterpeak egingo duen ehun euroko bi sariren zozketan izena emateko orria. Hilaren 27an, larunbatean, 18:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxean.

## OSTIRALA 26

### LASARTE-ORIA Erakusketa

*Bizikidetzarako memoria para convivir* erakusketa ondu du Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak.

Antonio Mercero gunea. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era (astearte eta ostegun goizetan, 11:30etik 13:30era ere bai), eta larunbatetan, 11:00etatik 13:30era.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

*Indarkeria matxisten aurkako erakusketa globalak* esposizioa antolatuko du Mugarik gabe gobernuz kanpoko erakundeak.

Emakumeen Zentroan, hilaren 28ra arte, igandea.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

*Levántate y mea de pie* antzezlanaren antzezlana taularatuko du Detritus Teatrus konpainiak. Sarrerek hiru euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

## LARUNBATA 27

### LASARTE-ORIA Literatura

Literatur lehiaketako sariak banatuko ditu Lasarte-Oriako

Udalak, hitzaldi aretoan. Kultur etxea, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Jaialdia

Jalgune elkarteak jaialdi koloretsua oparituko die ikus-entzuleei. Berezia izango da, eragileak 30 urte bete baititu aurten.

Kultur etxea, 18:00etan.

## IGANDEA 28

### LASARTE-ORIA Zinema

*La familia Addams 2* filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*El buen patrón* filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute eta sarean zein kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Kultur etxea, 19:30ean.

## ASTELEHENA 29

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak *Bizikidetzarako bizipenak eta kontakizunak* solasaldia antolatuko du, taldeari testigantzak eman dizkieten protagonistekin. Horren aurretik, ikus-entzunezkoa

proiektatuko du. Azaroan zehar antolatuko dituen hitzaldi sortako azkena izango da.

Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Literatura

Samara Velte kazetari eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) doktoreak *Nik sinesten dizut* liburua aurkeztuko du. Maider Galardi kazetari eta EHUko doktore herritarra izango da moderatzailea. Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren egitarauko jardueretako bat da.

Kultur etxea, 19:00etan.

## ASTEAZKENA 1

### LASARTE-ORIA Literatura

*Argi ibili gurekin* ipuina kontatuko die etxeko txikienei Beatriz Egizabal herritarrak. Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunaren egitarauko jardueretako bat da.

Udal liburutegia, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Hitzaldia

*Substantzien kontsumoa. Zer egin dezakete familiek?* solasaldia emango du Ortizadar elkartearen adikzioak saihesteko programen koordinatzaile Estibaliz Ansoategi-k Oriarte institutuko Landaberri eraikina (REM), 18:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

#### 'La familia

#### Addams 2'

#### Igandea 28

#### 17:00.

#### 'El buen patrón'

#### Igandea 28

#### 19:00.

#### ANDOAIN

#### BASTERO

#### 'The last duel'

#### Larunbata 27

#### 19:30, 22:00.

#### Igandea 28

#### 19:30.

#### Astelehena 29

#### 19:30, 22:00.

#### 'Monster family 2'

#### Larunbata 27

#### 17:00.

#### Igandea 28

#### 17:00.

#### 'Smallfoot'

#### Larunbata 27

#### 12:00.

#### USURBIL

#### URBIL

#### 'The Vault'

#### Ostirala 26

#### 16:05, 19:00,

#### 22:05.

#### Larunbata 27

#### 16:05, 19:00,

#### 22:05.

#### Igandea 28

#### 16:05, 19:00,

#### 22:05.

#### 'Encanto'

#### Ostirala 26

#### 15:45, 16:45,

#### 18:25, 19:25,

#### 21:05.

#### Larunbata 27

#### 15:45, 16:45,

#### 18:25, 19:25,

#### 21:05.

#### Igandea 28

#### 15:45, 16:45,

#### 18:25, 19:25,

#### 21:05.

#### 'Eternals'

#### Ostirala 26

#### 15:50, 18:10,

#### 21:45.

#### Larunbata 27

#### 15:50, 18:10,

#### 21:45.

#### Igandea 28

#### 15:50, 18:10,

#### 21:45.

#### 'Last night in

#### Soho'

#### Ostirala 26

#### 19:30, 21:35.

#### Larunbata 27

#### 19:30, 21:35.

#### Igandea 28

#### 19:30, 21:35.

#### 'El lobo y el

#### león'

#### Ostirala 26

#### 16:40, 18:30.

#### Larunbata 27

#### 16:40, 18:30.

#### Igandea 28

#### 16:40, 18:30.

#### 'Ron da error'

#### Ostirala 26

#### 15:45.

#### Larunbata 27

#### 15:45.

#### Igandea 28

#### 15:45.

#### 'Resident Evil'

#### Ostirala 26

#### 16:50, 19:30,

#### 22:10.

#### Larunbata 27

#### 16:50, 19:30,

#### 22:10.

#### Igandea 28

#### 16:50, 19:30,

#### 22:10.

#### 'Antlers'

#### Ostirala 26

#### 21:55.

#### Larunbata 27

#### 21:55.



## LABURPENA

### 'El buen patrón'

**Zuzendaria:** Fernando Leon de Aranoa. **Gidoia:** Fernando Leon de Aranoa. **Argazkia:** Pau Esteve. **Musika:** Zeltia Montes. **Ekizleak:** Reposado Producciones, Mediapro, TVE, TV3, MK2 Films. **Herr.:** Espainia (2021). **Irapena:** 120 minutu. **Generoa:** Komedio, drama. **Aktoreak:** Javier Bardem, Manolo Solo, Almudena Amor, Oscar de la Fuente, Sonia Almarcha, Fernando Albizu, Tarik Rmili, Rafa Castejon.

## Arrakastagatik, edozertarako prest

Balantza industrialak fabrikatzen dituen enpresa bateko jabea da Julio Blanco (Javier Bardem). Urduri dago, batzorde bat etorriko delako laster enpresa bisitatzena aztertzaileek ikusten dutenaren arabera, bikaintasun sari bat irabaziko du edo ez. Aitortza hori lortu nahi duenez, batzordea etortzen den egunerako fabrika bikain egotea

nahi du nagusiak, eta bere esku dagoen guztia egingo du irudi hori erakusteko, langileen arteko arazoetan esku hartzeraino.

Fernando Leon de Aranoa-k zuzendutako filma datorren urteko Oscar sarietan lehiatuko da, atzerriko lan onenaren kategorian; Espainiako ordezkari izateko hautatu du Zinema Akademiak.



**BLACK FRIDAY**

**%15eko deskontua argiztapenean**  
Norberak muntatzeko

**%10eko deskontua gainontzeko produktuetan**

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

600 85 75 86

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

**Zentzuz erosi.**  
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.  
**Baztertu estereotipoak.**

**Zeu zara zure influencer onena.**  
**#KontsumitzenJakin**

**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana*

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

TERMINO: MUNDUERRITZA  
ETA KONTSUMO GARA! DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

**INDARKERIA  
MATXISTAREN  
AURREAN EZ ZAITEZ  
IKUSLE HUTS BAT IZAN**

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.  
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.

NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:  
**berdintasuna.eus**

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro